

BAINA EZ LUKETE HAN EGON BEHAR

—Asier Osinalde Vidal—

Ipuinen nondik norakoa

“Baina ez lukete han egon behar” da ipuin-bilduma honen izenburua. Hamabi narrazioz osatuta dago, baina banan-banan aletu beharrean, orokorrean saiatuko naiz bilduma honen nondik norakoa azaltzen.

Narrazio hauek guztiak pertsonen kanpoaldean abiatzen dira eta barrualdean bukatzen, hau da, azalean dute abiapuntua, baina pertsonen barnea arakatzea helburu. Izan ere, hortxe dugu gordeta benetan inporta zaigun guztia, hortxe dauzkagu giltzapetuta gure buruarekin soilik partekatzen ditugun sekretu eta esperantzak, inori sekula aitortuko ez dizkiogun bekatu eta miseriak.

Ez dakit zuei gertatzen zaizuen, baina niri askotan gertatzen zait argazki baten aurrean jarri, edo hobeto esanda, erretratu baten aurrean jarri eta pentsatzea: “Bale, ondo dago, baina nor da argazkian azaltzen den hori? Are gehiago, nor zen erretratuan azaltzen den hori argazkia atera zioten egunean? Zer zuen buruan? Zer sentitzen zuen? Alai zegoen? Triste? Zein zen bere testuingurua? Zer zegoen argazkiaren markoaren ertzetatik haratago?... Azken batean, zer zegoen argazki horren atzean?”. Eta ipuin hauetan horixe egiten saiatu naiz: kanpotik barrurako bidaia, ikusten denetik ikusten ez den horretarainoko bidaia intimoa. Agian, horregatik, badaude hiru elementu ipuin guztietan modu batean edo bestean errepikatzen direnak: argazkiak, ispiluak eta begiak. Izan ere, beste batzuen artean, horiek dira kanpoko eta barneko munduaren arteko muga, eta, era berean, hiru elementu horiek berak dira bi munduak lotzen dituzten zubiak.

Pertsonaiak

Hamabi bidaiatxo hauetan hainbat pertsonaiak lagundu didate. Pertsonaia horiek pertsona arruntak dira, hau da, gu izan gaitezkeen bezain arruntak eta, gure moduan, haiek ere bakarrik jaio eta bakarrik hiltzen dira. Horien artean dauzkagu fundizioko langile bat, jostun bat, argazkilari bat, bizitza hobe baten esperoan bere herrialdetik ihes egiten duen tabernari bat, enpresaburu bat, futbol-jokalari bat, Erasmus ikasle bat, heriotzari iskin egin nahi dion lorezain bat, preso ohi bat, bizkartzain bat, maitasunaren hondarrei nola eutsi ez dakien jubi-

latu-bikote bat, txirrindulari bat, alzhemerrak jotako agure bat... Eta gu bezala, haiek ere saiatzen dira egunerokoan aurrera egiten, beren atsekabe eta frustrazioekin, beren esperantza eta ametsekin, beren sekretu, beldur eta ahuleziekin. Azken batean, guztiok bizi garen errealitate likido eta ezegonkor honetan orekari eusten saiatzen dira; eta batzuek alanbrearen gainean irautea lortuko badute ere, beste batzuk erori egingo dira; badaude, halaber, burdinazko harian betiko zintzilik geratuko diren batzuk, eta baita alanbrearen gainean dabiltzanik konturatu egiten ez direnak ere. Finean, denak daude aurrez imajinatu ezin zuten egoera batean harrapatuta, eta ez dakite patua izan den, kasualitatea edo egunero hartzen ditugun erabaki ustez garrantzi gabeak egoera horretara eraman dituen, baina ez lukete han egon behar.

Ipuinak eta haien arteko harremana

Liburu honetan azaltzen diren pertsonaiak ustez beregainak eta independenteak dira, eta, halakoxeak dira ipuinak berak ere, hau da, beren kabuz eta beste inoren laguntzarik gabe funtzionatzen dute. Hala ere, ezer ez da erabat zurruna, ezer ez da erabat estankua, eta, ondorioz, ipuinek elkarri eragiten diote, pixkanaka-pixkanaka armiarma-sare lauso bat osatuz eta ipuin-bildumari nolabaiteko osotasuna emanez.

Kontatzeko era: narrazioen egitura eta narratzailearen ahotsa

Kontatzeko erari garrantzi berezia eman nahi izan diot, bai egiturari dagokionez, eta baita narratzailearen ahotsari dagokionez ere. Ondorioz, badaude modu linealean eta kronologikoki idatzitako istorioak, baina baita ere erditik hasten direnak, bukaeratik hasten direnak, amaierara arte elkartzan ez diren istorio paraleloak, espiral baten formari jarraituz muinera gerturatu eta urrutiratzen direnak, egunkari moduan idatzitakoak, gutun bidezkoak... Era berean, narratzailearen ahotsa ere aldatu egiten da ipuin batetik bestera, eta nahiz eta gehienak hirugarren pertsonan dauden kontatuta, badaude lehengo pertsonan eta bigarrenean idatzitakoak ere. Modu horretan, eta istorioaren arabera, irakurleari gerturatu edota urrutiratzen saiatu naiz.

Ipuinen estiloa

Estiloari dagokionez, esango nuke nahiko bisuala dela, hau da, zinetik nahiko hurbil dagoela. Gainera, ipuin guztiak orainaldian daude idatzita, narrazioari gaurkotasuna eta gertutasuna eman nahian. Era berean, esaldiak motzak eta zuzenak egiten saiatu naiz, testuari erritmoa eta bizitasuna emateko, eta, bide batez, irakur-erraztasuna bultzatzeko.

Kokalekuak eta Ibar

Bukatzeko, esan nahi nuke asko gustatzen zaidala bidaiatzea, eta, agian, horregatik, leku dexente agertzen dira bilduma honetan. Buenos Aires azaltzen da, Menorca, Florentzia, Alemania, Ingalaterra... baina guztiak Ibar izeneko herri baten inguruan harilkatzen dira, eta, horrela, ipuin-bildumari osotasuna eta kohesioa ematen saiatu naiz.

Bidaiatzeko moduak eta gonbidapena

Egia esan hori ez da bidaiatzeko modu bakarra, amonak txikitan ederki asko erakutsi zidan moduan. Askotan nahikoa da begiak itxi eta imajinarioari hegan egiten uztea, edota pelikula batean aurrean jarri eta eramaten uztea. Liburuekin ere gauza bera gertatzen da, txoko batean lasai eseri, orria artean murgildu eta beste nonbait itsasoratzen gara.

Tira, ba horixe, ea hamabi bidaiatxo hauekin gozatu eta disfrutatzen duzuen.